



Urak ekarri ta urak eruan (1911)

Ermuko etxietara 1911. urtian ekarri zian urak. Francisco Izagirre zan orduko alkatea.

Etxiak hornitzeko urak San Pelaixoko itxurritxik ekarri zian orduan ta oiñtxe be herriko itxurri askotan hangotxe ura edaten dou. Han beti dator ura, ujal zeñ sikuterik gogorrenekin.

Orozkoneko basarrixan gaiñekaldian depositxo bat eiñ zan San Pelaixotik etorren ura hartu ta etxieta-
ra partitzeko. 1941. urtian haunditxu eiñ bihar izan zan, ur dana ez zalako bihar dan moduan aprobetxatzen.

Uraren indarra aprobetxatzen eben errota ugari egon dia, nahiz ta danak ez ezautu batera biharrian: **Malengonekua**, **Matxienekua**, **Errotabarri**, Sallabenteko **Etxegiñana**. Urriñera juan barik Eitzan **Kondianekua**, Olarrian **Berdengillo** ta **Agirreazaldegiñak** ta Sallabenten, baiña Zaldibarko lurretan, **Bekoerrota** euazen.

Gaur Zubiaurre kalian 44 zenbakixa dakan etxia sasoi baten **Malengoneko** errota izan zan. Honek Arteta ta Urko aldetik etozen urak erabiltzen zitxuan.

Errekalde errekiaren urak, **Drogeten Itxurrixa** baiño beheraoko kunbuan, erreten baten sartzen zian. Honek **Zabaleta** errekatik Pagorben, gaurko kanposantu inguruan, etaratako beste erreten batekin bat eitxen eban. Alkarrekin **Zerukua** etxiaren ondoko depositxo-raino juaten zian. Handik goitxik ura **Malengoneko** errotaraiño abixada itzelakin jausten zan. Argi-indarreko zentrala ekan, ta 60 etxetara zabaltze eban argixa

(Trabaku arteraiño Mollabiko basarrixak gehixen bat). 1963. urtian, segundoko 60 litro etortzen zian. Horrei uroi probetxua etaratzeko deretxuak erosi zitxuan Udaletxiak, Jose Luis Zubizarreta alkate euala.

Malengonetik Mollabiko basarri batzutara argixa zabaltzen zan lez, **Berrizko Okako** zentrala zan Ermuko etxietarako argi-indarra sortzen ebana.

Euren biharra eiñ da gero, urak beste erreten baten etortzen zian **Malengonetik** Errebaleko labaderoraiño (hortik dator Errebalburu kaliaren izena).

Labaderotik zuzenian **Matxiñen** kunbora jausten zian urok; **Zinkoneko** basarri onduan, Mollabixik etorren **Urtia** errekiakin bat eitxen eben.

San Antonion beste presa bat euan, **Errotabarriraiño** ura erretenian eruateko, apropos eindakua. Matxiñek errota ta panaderixia ekazen lekua, taillar modura erabilli da luzeruan. Ontzurarte ezautu dou bertan, Probaleku ondoko garaje, lokal ta plaza zabal hori eitxeko bota eben arte.s

Errotak sasoi baten bihar haundixa eitxen eben. Basarrixetan garixa ta artua ereiñtxen zan ta etxian hartutakuaz jaten zan urte guztixan. Garixori ta artuori errotrara eruan bihar izaten zan zehetzeko. Urun horrekin morokilla, taluak, aixa edo asteko ogixa eitxeko erabiltzen zan.

Erretratua Elixako atian onduan etarata dao. Bihargiñen eskumakaldian, orduko denporetako sutai bat ikusten da keetan. Enpalmiak eitxeko beruna urteko erabiltzen zan sutaixori.